

Lerro hauen bidez, Jean Louis Davantek Antoine D'Abbadie lapurtarraren bizitzara eta garai hartako gertakizun eta kontestu historikora hurbiltzen gaitu. Antoine D'Abbadieren mendeurrena ospatu den urte honetan egokitzat jo dugu haren aportazio nagusia izan zen lore jokoan eza-gupen sakon eta hurbilago bat egitea. 1851n Urruñan hasi ziren Antoine D'Abbadieren euskal jaiak, pilotarekin. 1853an euskal kirola nagusiari erantsi zioten olerki lehiaketa sonatua, eta ordutik lore joko bilakatu ziren Abbadieren festak.

LORE JOKOEN INGURUMENAZ

Jean Louis Davant

Historialaria, idazlea eta Euskaltzaina

1810ean Dublinen jaio zen Antoine d'Abbadie, eta 1897an hilen da. Aita Urrüstoiko bazuen, irlandarra zuen ama, eta berak Dublinen pasa zituen lehenbiziko hamar urteak. Irlandarra da beraz, euskalduna halere, aitik euskaraz erakatsi baitzion, zubereraz naski; baina gero lapurtarra izango da nagusiki, Lapurdin biziko baita ia mende erdiz (1849-1897), eta lapurteraz idatzi zituen euskarazko bere idazlan urriak: hiruzpalau gutun dira mementoko aurkitu direnak.

1.-HASIERA

1851n Urruñan hasi ziren Antoine d'Abbadieren euskal jaiak, pilotarekin. Ondoko urtean halaber izan ziren. 1853an euskal kirola nagusiari erantsi zioten olerki lehiaketa sonatua, eta ordutik lore joko bilakatu ziren Abbadieren festak.

Zergatik Urruñan? 1849an herri horretan eresia zuen Aragogoria izeneko etxaldea, eta han eraiki beharra zuen gaur Hendaiako eremuan dagoen «Abbadia» jauregia. Bitartean auzi luze bat ukan zuten bi herriek, hogeita hamar bat urtekoa, bakoitzak aldarrikatzen zuela bere jabegoa, eta azkenean parte handiena Hendaiari utzi zion Errepublikako presidentek.

izenpeturiko dekretu batek, 1896an.

Beste jauregi bat bazuen Antoinek Aداusen (frantsesez Audaux), Biarno bazterrean, Navarrenx-Nabarrenkosetik hurbil, Urrüstoitik dozena bat kilometrotan: 1833an erositako zuen, iduriz aitaren ganiko ondareaz, aintzineko urtean zendu baitzitzaien. Adauseko jauregia berantago salduko zuen, 1859an, Hendaiaikoaren eraikitzeke. Eroslea Marie COULOMB paristar andere protestantea, laster Baigorri «Etxauzeko anderea» dateana: Charles d'Abbadie d'Arrast, anai gazteenaren emaztea. Arnauld, arteko anaia, Ziburun kokatu zen, amak erositako duen ontasun batean (Etxauzea gazteenarentzat erosi zuen bezala).

Ikusten dugu zinez aberatsak zirela hor d'Abbadietarrak. Aberastasuna ez zuten Urrüstoitik, Irlandatik baino, bi gurasoen aldeetik. Familia puxantekoa zuten ama, Elisabeth Thompson of Park irlandarra. Aita berriz, Michel (Arnauld-Michel) d'Abbadie, Dublinen aberastua zen ezkondu aintzin, kanal baten kudeantzatik eta gero armadoregoatik.

Lafitte baionesa lagunduko zuen Banque de France delakoan: ez zen beraz aberats ttikia!

Aldiz Urrüstoiko aitona, Jean-Pierre d'Abbadie (1731-1799), nekazari on bat zen, gainera notarioa eta abade-laikoa, hots tokiko elizaren zaintza-lea. Ez zen aberatsa, zeren etxaldeko lanetan ari zela badakigu hango iturri batzuetatik. Gainera Urrüstoiko Abadia ez zagon Zuberoako etxe nobleen zerrendan. Azkeneko ez dirudi lehenik uste zen bezain zaharra denik etxe hori, Urrüstoiko etxeen artean ez baitakar Erdi Aroko «Censier de Soule» delakoak, Izpegi argialetxeak berriki agertu duen edizioan frogatuz. XVII. mendekoa da gaurko edifikazioa, etxe polita, ez halere jauregia.

Dena dela, izpirituz bederen aitoren semeak ziren Antoine eta haren anaiak, zinez dirudunak gainera. Adibidez, ikerketarako txangoak bere sakelatik ordaintzen zituen jakintsun horrek, eta horrela ibilia zen dozena bat urtez Etiopian gaindi Arnauld anaiarekin (1837-1848). Handik itzuli berria zen beraz Urriñan plantatu zelarik.

Bitartean bi gertakari handi agituak ziren Frantziako erresuman:

-1847an amaitu zen Aljeriaren konkista, urte horretan amor eman baitzuten Abd-El-Kader handiak, Frantziako armadaren presoner jarritz. Aljeriak bere garrantzia ukanen zuen Abadiak emigrazioaz dukeen ikuspegi-gian.

-1848an iraultza batek haizatu zuen Louis-Philippe, Antoine bezalako legitimistek eta Xaho bezalako errepublikatiarrek hastio zuten erregea, 1830ean beste iraultza batez burges liberalek tronuan emana baitzuten Charles X Bourbontar zuzenaren orde, lehengusua zuelarik hau. Jarraian Bigarren Errepublika sortu zen Parisen, eta Baionaz ere jabetu Xaho sonatuari esker.

«Euskal Herriko jabe nagusiak eta apaizak zituen partzuerak. Ez da dudarik horien ikuspegi bera zuela euskal gizarteaz. Bat zauden imperadoreak zeraman kulturaren politikarekin, eskualdeetako tradizioak babestu nahi baitzuten, bestalde sustatzen zuen ekonomiaren garapen modernoaren antidota eta harresi sozialki mugatzaile bezala. Tradizioen aldeko politika ofizial hori gustukoa duke Antoine d'Abbadiek, horren haizea bultzatzaile du, baina nortasun handia duen bezala ez da inoren mende jartzeko gizona. Badu baldintza gabeko euskaltzetasun bat, abertzetasunerantz doana gutienez»

**«Euskara eskolatik bota
behar zen, edo handik
urrun utzi: hara zer zen
agintarien politika, bai
iparraldean, bai
hegoaldean, hizkuntza
bakarrera heltzeko.
Perlaz oso aberatsak
ditugu iragan mende
horretan prefetek eta
inspektoreek euskararen
aurka erran zituztenak»**

2.-BIHURGUNE HANDIA: 1848-1852. IRAULTZA ETA ZURIEN ERANTZUNA

Gora-behera handiak ekarri zituen 1848ko iraultzak eta horietan kokatu behar ditugu d'Abbadie-ren lore jokoak.

1/-1848ko apirilaren 23an, lehenbiziko aldia bozkatu zuten Frantziako hiritar gizonezko guzietan: 9 milioi dira. 900 deputatu hautatzen dituzte, haietan 500 errepublikatari moderatu, Lamartine poetaren inguruan. Konstituzio berri bat bozkatu zuten.

2/-1848ko ekainean, ezin biziak bultzaturik, armak eskuan oldartu zen Pariseko langileria. Zapaltzen du armadak eta bortizki zigortzen gobernuak. Haustura handia dakar gertakizun horrek. Montalambert bezalako katoliko sozial batzuk eskuin muturrera saihesten ditu gorrien beldurrak. Langileriaren aitzi, lehenbiziko sozialisten aurka, orokorki ezkeraren aurka, bat egiten dira burgeseria eta gehiengo zabala duen baserritar mundua. Egoera berri horrek zinez baldintzatuko du lore jokoen inguru-mena kasik hogeitaz (1851-1869).

3/-1848ko abenduaren 10ean, Errepublikako presidente hautaturik da Louis-Napoleon Bonaparte printzea, gehiengo harrigarri batez. Haren alde bozkatu zuten zuri guzietan, eta bereziki nekazariak.

4/-Deputatuen bozketan, 1849ko maiatzaren 13an, leherturik daude errepublikatari moderatuak. Euskal Herrian ere, arrakasta handia ukan zuten 1848ko hauteskundeetan. Oraingoan departamenduko hamar deputatuetatik hautetsi bakarra da Renaud, garaztar errepublikatariarra. Deputatuen ganbaran nagusi dago «Ordenaren alderdia» (le parti de l'Ordre), 500 erregetiar eta katolikoekin: Errepublikaren eta demokraziaren etsaia da, naski!

5/-Ganbara horrekin ez da konpontzen halere printze-presidentea: boterea beretzat nahi du osoki. Armada eta langileak lausengatzen ditu demagogia handiz. Estatu kolpe bat egiten du 1851ako abenduaren 2an (lehenbiziko inperioaren urteurren bat da). Barrikada batzuk eraikitzen dituzte Parisen. Beharrik gabe jende oste bat tirokatzen du armadak: 300 hil! Aitzaki ona da: zapalkuntza bat izigarria hasten da sozialisten, gorrien eta orokorki errepublikatari buru guzietan aurka. Xaho hegoaldera doa desterruz urte pare baterako, Renaud hamar urterentzat!

Ondoko abenduaren 20an, bozemaileen gehiengo izigarriak, kasik ahobatez, botere osoa emaiten dio printze-presidenteari, Konstituzioaren aldatzeko.

6/-1852eko urtarrilaren 14ko Konstituzioak (ez zuen denborarik galdu!) ahal guzietan emaiten zizkion hamar urterentzat Frantziako diktadore berriari. Abian kasetak lotzen ditu hestuki. Kandidatu ofizialak baizik ez dira haizu hauteskundeetan, eta zin egin behar dute.

7/-Bozka berri batzuez, inperadore izendaturik da Louis-Napoleon Bonaparte printze-presidentea: Napoleon III. Kargu berrian sartzen da 1852ko abenduaren bian!

Bukatu da politikako askatasuna. Jokoz kanpo daude alde batetik Errepublikak, bestetik ohiko Erregetza. Ordainez inperadoreak hitz emaiten du bakearekin bizikideen suspertzea. Honen alde dago Kalifornian aurkitu berri duten urrea. Beraz botere berriak sustatuko ditu lankia handiak: labakitze, bide berri, trenbide, kanal... Landesak orduan dituzte oihanez beteko...

Ordenaren alderdiari burua pikatu dio Napoleonek Parisen, baina probintzietan bere alde du zurien mundu hori, gorrien beldurrez.

Eta gure Antoine d'Abbadie? Printze horren laguna da itxura guzien araberak. Ezagutzak egin zituzten 1836an, Brasilerako bidean, Andromède itsasontzian, eta geroztik harreman onak atxiki dituzte. Hendaiako Abbadia jauregiari azken harria eman beharra zion inperadoreak, baina 1870ean alemanen aurkako gudua galdurik, haiek presoner eginik, desterrurako bidea hartu behar izan zuen, Ingalaterrarentz. Beraz harri bat eskas du Abbadiak balkoi batean, adiskidantzaren lekuko ederra delarik hutsune hori. Ez du frogatzen, ordea, ber politikak zutenik. Alderantziz, Kontseilu orokorrerako bozketan Maulen bere buruaren aurkeztea baztertu du 1869an, kandidatura ofiziala desogokia zaiolako Euskal Herrian: «*Je voudrais tenir mon mandat du vote libre de mes concitoyens*» idatzi zion Faïssa de Gaztelu, Urrüstoiko jaunari (1869/I/30).

Urrunago doa DUVOISIN kapitainari zuzentzen dion gutun batean: «*Quelle que soit la bonté dont Napoleon III a toujours usé envers moi je ne croirai la France heureuse qu'avec un Bourbon parce que ce dernier (illisible) sur un principe consacré par des siècles et qu'aucun (illisible) actuel ne saurait renverser: Je crois cependant que le vaisseau de l'Etat vogué en dérive pour aboutir finalement au gouffre d'une République gouvernée par un despote...*»

Egia da Frantziako lehen bi Errepublikak tirano baten azpian bukatu zirela. Legitimista egon zen beraz Abadia, eta bere gisan demokrata, Euskal Herriko mailan bederen. Bestalde autonomia zabalena gura zuen udalentsat. Dena dela ez zen oroz gainetik politikazalea, jakintsuna eta kultura gizona zen lehenik, izpiritu gora eta zabala zuen, eta horrela tolerantzia handia erakutsi zuen gutiz gehienetan, adibidez Xaho bezalako errepublikatari, ezkerreko, gorri, antikristau batekin ere lan eginez.

Baina ber denboran, katoliko suharra zen eta jauna. Lore jokoetan bereziki, Euskal Herriko jabe nagusiak eta apaizak zituen partzuerak. Ez da dudarik horien ikuspegi bera zuela euskal gizarteaz. Eta alde hortarik bederen bat zauden inperadoreak zeraman kulturaren politikarekin, eskualdeetako tradizioak babestu nahi baitzituen, bestalde sustatzen zuen ekonomiaren garapen modernoaren antidota eta harresi sozialki mugatzaile bezala. Tradizioen aldeko politika ofizial hori gustukoa duke Antoine d'Abbadiek, horren haizea bultzatzaile du, baina nortasun handia

«Hots frantses ideologia: hizkuntza bakarrarena, hura frantsesa delarik, bistan dena... Errepublika baino lehen zen. Beraz ez da Errepublika gure min guzien ama, euskaltzale mordo batek oraino uste duenaren. Baina bada bide gaizto hortarik jarraitu du. Ez da soilik eskuineko ideologiaz, euskararen arazoak ere garrantzia handia du hor»

«Urruñan ospatuko dira lore jokoak hamaika urtez jarraian, 1853tik 1863ra (eta hamahiruz euskal jaiak, pilotarekin 1851n hasiak barne jarritz). Baina 1864an Sarara pasako dira, ez dakit oraino zergatik, eta han 12 aldiz jarraian jokatu (1864-1876), gerlako urtea hutsik utziz (1870). Gero herriz herri kurrituko baitira, beste lau bider Saran emanen dira: d'Abbadieren 47etatik 16 beraz Saran»

duen bezala, ez da inoren mende jartzeko gizona. Iparraldeko euskaraz erraiten denez, «un plus» badu, zerbait besterik, eta hau da baldintza gabeko euskaltzaletasun bat, abertzaletasunerantz doana gutienez.

3-EUSKAL KULTURAREN EGOERA NEGARGARRIA

Euskara eskolatik bota behar zen, edo handik urrun utzi: hara zer zen agintarien politika, bai iparraldean, bai hegoaldean, hizkuntza bakarrera heltzeko, hura baitzen Erregearena, eta gero zoritxarrez iparraldean segurik Errepublikarena ere!

Iparraldean egonen naiz, hobeki ezagutzen dutan bezala, hemen hasi baitziren ere lore jokoak. Perlaz oso aberatsak ditugu iragan mende horretan prefetek eta inspektoreek euskararen aurka erran zituztenak. Biga soilik aipaturen ditut hemen, aski adierazgarriak baitira jaun horien xede garbitzaileez:

-1833an inspektore batek Maulen: *«J'ai exigé des instituteurs l'abolition entière de l'usage de la langue basque en classe»*. Ongi ulertzen dugu: hitzik ez da behar euskaraz eskolan!

-1846ean prefetak: *«Nos écoles en Pays Basque ont particulièrement pour objet de substituer la langue française au basque»*. Hau ere aski argi eta garbi zaigu: ez zaio, ez, euskarari frantsesa gehitu behar, amorekatik eta frantsesa ERE jakin dezagun! Euskara hil behar da, frantsesa baizik ez dezaten jakin baskoek! Hots frantses ideologia: hizkuntza bakarrarena, hura frantsesa delarik, bistan dena...

Prediku beharrik ez dute ahapaldi horiek, berenaz aski erraiten dute hitz gutiz. Baina hauxe azpimarratu nahi nuke: Errepublika baino lehen zen. Beraz ez da Errepublika gure min guzien ama, euskaltzale mordo batek oraino uste duenarren. Baina bide gaizto hortarik jarraitu du. Dena dela ez dugu harritu behar errientei aiher bazaie Antoine d'Abbadie: ez da soilik eskuineko ideologiaz, euskararen arazoak ere garrantzia handia du hor.

Harrigarriago dena, gobernuko eskoletan bezala, elizakoetan ere debeku zen euskaraz aritzea, Baionako seminario handian eta Larresoroko seminario ttikian bederen. Nahigabe bat izigarria ukan zuen Abadiak Baionako apaizgaitegi handiko buruzagien ganik. Hor bere diruz euskararen erakasteko aulki baten eraikitzea proposatu zuelarik, eskubide hori ukatu zioten etxe saindu horretako buruzagiek.

Kontsolaturen da haurrak lagunduz: lehenbiziko jaunartzean euskaraz ongi dakiketenei, sariak emanen dizkie, horretarako apaizik gabeko mahaiak antolatuz. Hor ikusten da eskubiko ideologia batez besterik bazuela bultzatzaile Antoine d'Abbadiek: zinezko euskaltzaletasun bat, alderdikarien gainetikoa, hala beharrean adiskide zurien aurka zoana. Horrek berak duke gehienik bultzatu lore jokoen antolatzaera, ikusirik euskararen beharrune lazgarriak!

4-EMIGRAZIOA

Lehen olerki lehiaketa 1853an antolatu zuen beraz Abadiak Urruñan, Harriet apaizaren laguntzarekin. Hau Baionako apaizgaitegi nagusiko zuzendaria zen. Epaimahaikoen hautatzeaz kargatu zuen Aragorriko jaunak. Apaizak izan ziren nagusiki epaileak, gehi jaun hauek: Ducos Donibane-Lohitzunekoa eta Larralde-Diustéguy, Urruñako auzapeza eta Leremboure, Baionako abokatu bat. Olerkiak alde aurretik bidali behar ziren idatziz, izen-abizenik gabe. Gaia: emigrazioa.

Ez zuen airera hautatu mahaiak. Arazo larria zen iparraldean. Hogeitabat urte lehenago, 1830 irian, Rio de la Platarantz abiatu da hemengo jendea burrustan. Uruguaiako gobernuak europarrak bereganatu nahi ditu, lur berrietan nekazaritzaren garatzeko. Laguntzaileak baditu Euskal Herrian, bereziki Baigorriko auzapez ordea den Labarraque medikua. Hau zinez bozten da 1835ean, berrogei baigorriar gazte batean itsasontziratu baitira egun berean! Montevideo eta Argentinarako joera hain da indartsua non husteratzen doatzen iparraldeko herriak: 1832tik 1841era, Francisque Michel-en arabera, bost mila pasaporte hartu dituzte Paueko prefeturaren, eta beste bi mila pertsona hegoaldera pasa dira itsasontziratzen.

Beraz, 1840tik 1860ra tai gabe Pariseko gobernuari deika ari zaio departamentu honetako Kontseilu orokorra, emigrazioaren murrizteko izariak har ditzan. 1844an arazoaz jabetzen da deputatuen ganbara, eta Chegaray deputatuak dio 1832tik 1843ko abuztu lehenera, 8174 pertsona, gutiz gehienak euskaldunak, Montevideorantz abiatu direla: hots iparraldeko jendetzaren hogeigarrena (%5).

Ondoko urteetan pixka bat eztatzen da uholdea, baina sekula baino azkarrago dugu jariora 1850-1854 artean. Hona Francisque Michelek emaiten dituen zenbakiak: 1848: 672 emigratzaile. 1849: 1012. 1850: 1807. 1851: 1853: 1206. 1854: 1838.

Antoine d'Abbadieren olerki sariketa horretara etorri ziren 37 lan, haietan Etxahun Barkoxekoaren bat, «Montebidorat juailiak», baina ez zen garai le atera eta beste olerki zorrotz bat agertu zuen ondoren, «Bi berseten eguitzez», epaileen aurka, apaizak bortizki jorratuz. Urruñako lehen olerki lehiaketa horretaz eta emigrazioaz, ikus Haritschelharren lana: «L'oeuvre poétique de Pierre Topet-Etchahoun», in Euskera, XIV-XV, 1969-1970, Bilbao.

Ez zen printzipioz emigrazioaren etsaia d'Abbadie. Baina batetik Frantziak berriki konkistatua zuen Aljeriarantz bideratu nahi zuen, dela Rio de la Plata baino hurbilago zelakoan, dela Frantziako gobernuaren babespean zagolako, dela gure jakintsunak Afrikari zion atxikimendu berezia gatik. Bestetik gehiegizkoa bide zitzaion gertatzen ari zen jariora: beso eskazeh ahulduko zela Euskal Herria, beldurtzen hasiak ziren arduradunak.

Kopuruzko beherapenez gainera, kalitatezkoa ere gertatu zen euskaldu-

**«Beste bihurgune bat,
garrantzi handikoa,
gertatuko da 1870ean,
alemanen aurkako gudu
galdurik, porrot eginen
baitu Inperioak: ordainez
Errepublika etorriko
zaigu. Horradino nahiko
lasai joan zaizkio lore
jokoak, aipaizen eta jaun
zurien laguntzarekin,
Inperio denborako giro
kontserbatzailean,
baserri munduko
tradizioaren ildotik»**

**«Argi dago
d'Abbadierentzat oroz
gainetik daudela euskal
Foruak. Haien galerak du
aztoratzen. Jota gelditzen
da halaber hegoaldea.
Horko bihotzen
sustatzeko, lore jokoak
Bidasoaz haraindian
egingo ditu Abadiak. Eta
hara non, Arturo
Campion eta beste nafar
euskaltzale batzuek
bultzaturik, "Asociación
Euskara de Nabarra"
batasunak Abadiari
proposatzen dion
elgarrekin antolatzea
Nafarroa Garaian.
Horrela izanen da 1879-
ko uztailan. Muga hori
gainditu da noizbait!»**

nen artean. Ordurarte, ez zen bakarrik nekazaria baserri munduko jendea: ofizio mota guztiak bazituen bere baitan. Ikus adibidez Etxahun Bar-koxekoaren «Ofizialena» delako abestia. Horien artean, bere intelektua-lak bazituen iparralde barneak: notario, sarjant, mediku, eta abar... Jende-tza %25ez jaixten zelarik, bereziki mendi aldean, intelektual horien zenba-kia %80ez behera zoon, Baionako F. Battitta LARZABALEk egin duen iker-keta baten arabera. Horrela apaizak gelditu ziren iparralde barneko inte-ktual bakarrak, maila apalekoa baitzen erriente jakintza, eta horrek es-plikatzeko du parte handi batean luzaz pairatu dugun klerikalismoa, jan-senista kutsukoa gainera, Baionan sortu baitzen jansenismoa eta gero beti eraginkor egon azken Kontziliario: adibidez egundaino ez dira hemen sartu ahal izan haren etsaiak ziren jesuitak.

Emigrazioaz beste ohar bat. Lehen karlistadaren galtzeari botatzen zaio erru nagusia, Espainiako aduana Ebrotik bortu begira ekarri baitzuen, iparraldearen eta hegoaldearen arteko harreman ohikoak hautsiz sal-eros-penetan. Ordutik beherakada bat handia ezagutu omen zuen iparraldeko ekonomiak.

5-INPERIOTIK ERREPUBLIKARA (1870)

Urruñan ospatu ziren lore jokoak hamaika urtez jarraian, 1853tik 1863ra (eta hamahiruz euskal jaiak, pilotarekin 1851n hasiak barne jarritz). Baina 1864-an Sarara pasatzen dira, ez dakit oraino zergatik, eta han 12 aldiz jarraian jokatu (1864-1876), gerlako urtea hutsik utziz (1870). Gero he-rriz herri kurrituko baitira, beste lau bider Saran emanen ziren: d'Abbadieren 47etatik 16 beraz Saran.

Beste bihurtune bat, garrantzi handikoa, gertatuko da 1870ean, alema-nen aurkako gudua galdurik, porrot egingen baitu Inperioak: ordainez Erre-publika etorriko zaigu Parisetik, arazoak sortuz Abadiari. Horradino na-hiko lasai joan zaizkio lore jokoak, aipaizen eta jaun zurien laguntzare-kin, Inperio denborako giro kontserbatzailean, baserri munduko tradizio-aren ildotik.

Olerki lehiaketetan parte hartu dute halere errepublikatari sonatu batzuek, bereziki Elissamburu bi anaiek, saria maiz eramanez. Ber giroan pasako dira halaber Louis-Lucien Bonaparte printzearen bost txangoak (1856-1869): mugaren bi aldeetako Euskal Herrien barna, Antoine eta Charles d'Abbadiek aurkituko dizkiote laguntzaileak idazleen artean.

1869an jadanik arazoak agertzen hasten zaizkie zuriei. Inperio liberalean sartzen gara eta horri esker deputatugoa aurkezten da Charles d'Abbadie protestantea, errepublikatiarrek bultzaturik, nahiz etiketa hori gabe, le-gez debekatua baitzen ere. Garaile aterako zaio Baionako auzapeza, La-bat, kandidatu ofiziala, hots Napoleontiarra.

Gero lore jokoetan nahigabeak ukanen zituen Antoinen errepublikatiarre-kin, bereziki Guilbeau Donibane-Lohitzuneko medikuarekin (hiritar jau-na, nonbaitik ere). 1872an olerki lehiaketarik ez baitzen izan, bi aldiz gal-

de eta protesta egin zuen «Le Courier de Bayonne» kasetan; bigarren aldian bere olerki bat agertu zuen hor, «Enarak», eta beste olerkariak deitu zituen halaber egitera. Laster Baigorriko Betiri (Piarres) Ibarrart-ek agerriarazi zuen «Gerlako presunier bat». 1874an berriz epaileak gogorki jorratu zituen Guilbeauk, «Jaungoikua eta Errija» olerki karlistari lehen saria eman ziotelako: medikuak deitoratzen du armetara deitzen dituela haurrideak haurriden aurka. Ondoko urtean Vinson basoetako funtzionario errepublikatari euskaltzaleak gosestu zuen lore jokoen arrakasta ongi merezia, baina kritikatzeko epaimahaia, ezezaguna eta misteriotsua delako.

Errepublikatarien kritikez kondu atxikiko dute d'Abbadiek izendatu epaileek. Adibidez 1876an saririk gabe utzi zuten olerki hoberena, Gratien Adema-Zalduby apaizaren «Biba Errepublika», sobera trufatzen delako Errepublikaz. Iniziatiba hartuko duena da Duvoisin, erregetiar legitimista delarik Abadia bezala.

Beste nahigaberik ukanen du Antoine politikako giro berriaren ondorioz. Lau urtez Hendaiako auzapez da (1871-1875). Lan asko egiten du hor, baina gorriekin arazoak baditu, eskola katolikoa laguntzen baitu suharki, eta kargua utziko du. Berriz 1876an deputatuen bozak baitira, Arnould d'Abbadie aurkezten da itsasaldean legitimista bezala. Baina hasarre dira bi anaiak, 1866az geroztik ez dute elgar ikusten eta ez elgar ikusiko ere Arnault hil arte (1893): 2. itzulian hauteskondeetatik erretiratzen da hau, Labat-en alde bozkatzeraz deituz, nahiz gauza batzuetan ez dauden bat legitimista eta bonapartista.

Euskal Herri barnean, Renaud garaztar errepublikatiarra sustengatzen du Charles d'Abbadiek. Mauleko erretora den Bordachar apaizak Antoineri gutunez dei egin zion anaiaren propaganda oztopa dezan Urrüstoiko herrian, Daguerre auzapezari hitz bat erranez; baietz ihardesten dio gure jakintsuak. Auzapez hori askazia du gainera. Hiru aldiz deputatu izana, galtzaile aterako zen Renaud 1876an.

6-HEGOALDEAN: PRE-NAZIONALISMOA (>1879)

Porrot egin dute bigarren aldiko Karlistek. Haien alde zagon Antoine eta ez soilik eskuineko ideologiaz, ene ustez gainera ez lehenik ere. Hona haren idazki batzuk:

Tirso de Olazabal-i. 1876/06/03. «*La fin de la guerre basque me navre. Si j'en crois mes renseignements privés, Don Carlos n'a même pas essayé de sauvegarder par un "convenio" ces vieux us basques qui ont fait sa force et qu'on voudra anéantir aujourd'hui*».

1876/05/31. «*Les attaques indignes dirigées contre les fueros basques me préoccupent beaucoup*».

Javier Verdu-ri. Datarik ez dut. «*Les nouvelles sur l'état de l'Espagne m'intéressent beaucoup. Je n'ai pas de données sûres quant à l'esprit des Castilles et du midi mais comme Basque et en pays basque je suis Carliste pour le*

«Ondoko urteetan, txandaka mugaren bi aldeetan eginen dira lore jokoak. Gainera d'Abbadierenen alboan, beste batzuk antolatuko dituzte hegoaldeko erakunde batzuek, bereziki udaletxeek: lehenak 1879an Donostiakoak. Olerkien mailaz gain, tematika ere aldatuz joanen da hegoaldekoei esker, izen berriak agertuko diren arau: Artola, Iraola, Lopez-Alen... Horiakin agertzen da Euskal Herri osoaren kezka herri-nazio bezala, eta herri hiritarrago, urbanoago bezala ber denboran. Hots giro pre-abertzale bat esnatzen da hor»

«1877an, agertzen dira hegoaldean horrelako pentsakera duten euskaltzale talde batzuk: adibidez Bizkaian "euskalerrriako"ena (Sagarminaga, Artiñano, Angulo, Hormaza...). Baina interesgarriena dugu agian "Asociación Euskara de Nabarra" batasunaren inguruan bilduko den intelektualen multzoa: Campion, Iturralde, Aranzadi, Oloriz, Langa, Lagarde, Ansoleaga, Irazoqui, Iñarra, Echaide, Gaztelu, Azcona, etab... Abertzaletasun modernoaren aintzindariak ditugu. Arturo Campion dute burua eta, duda barik, Sabino Arana-Goirik baino kultura zabalago eta goragokoa du askoz ere»

Nord...».

Argi dago d'Abbadierentzat oroz gainetik daudela euskal Foruak. Haien galerak du aztoratzen. Jota gelditzen da halaber hegoaldea. Horko bihotzen sustatzeko, lore jokoak Bidasoaz haraindian egingo ditu Abadiak. Eta hara non, Arturo Campion eta beste nafar euskaltzale batzuek bultzaturik, «Asociación Euskara de Nabarra» batasunak Abadiari proposatzen dion elgarrekin antolatzea Nafarroa Garaian. Horrela izanen da 1879ko uztailan. Muga hori gainditu da noizbait!

Olerki sariketan garaile jalgitzen da Felipe Arrese-Beitia bizkaitarra, «Ama euskeriari azken agurrak» abestiagaz, nahiz Iparragirrek ere lehiaketan parte hartu duen. Baina lehen sariaren berririk ez da emanen publikoan, politika handiko arrazoen gatik. Hona zer idazten duen Duvoisinek: «*Como el Pais Vasco español esta bajo estado de sitio, no hemos juzgado oportuno publicar que el Sr. Arrese era el primer laureado del Concurso (por temor de que se prohibiera en lo sucesivo este concurso), pero se le haría llegar el premio*». (RIEV. 1930, p.358).

Beherantz baitzoatan iparraldean parte hartzen zuten olerkarien kopurua eta maila, Zuberoa bereziki bazter egoiten zela, olerki lehiaketa zinez suspertu zuen hegoaldeak. Hor ere mintzo zaigu Duvoisin, d'Abbadieri bidaltzen dion gutun batez: «*Les pièces françaises (sic) sont entièrement effacées par les guipuscoanes et les biscayennes,...*».

Ondoko urteetan, txandaka mugaren bi aldeetan eginen dira lore jokoak. Gainera d'Abbadierenen alboan, beste batzuk antolatuko dituzte hegoaldeko erakunde batzuek, bereziki udaletxeek: lehenak 1879an Donostiakoak. Olerkien mailaz gain, tematika ere aldatuz joanen da hegoaldekoiei esker, izen berriak agertuko diren arau: Artola, Iraola, Lopez-Alen... Horiekin agertzen da Euskal Herri osoaren kezka herri-nazio bezala, eta herri hiritarrago, urbanoago bezala ber denboran. Hots giro pre-abertzale bat esnatzen da hor.

Urte haietan, eta bereziki 1877an, agertzen dira hegoaldean horrelako pentsakera duten euskaltzale talde batzuk: adibidez Bizkaian «euskalerrriako»-ena (Sagarminaga, Artiñano, Angulo, Hormaza...). Baina interesgarriena dugu agian «Asociación Euskara de Nabarra» batasunaren inguruan bilduko den intelektualen multzoa: Campion, Iturralde, Aranzadi, Oloriz, Langa, Lagarde, Ansoleaga, Irazoqui, Iñarra, Echaide, Gaztelu, Azcona, etab... Abertzaletasun modernoaren aintzindariak ditugu. Arturo Campion dute burua eta, duda barik, Sabino Arana-Goirik baino kultura zabalago eta goragokoa du askoz ere.

Nafar talde horrek du «Zazpiak-Bat» formula matematikoan antolatuko eta finkatuko Antoine d'Abbadiek eta Agustin Xahok 1836ko beren gramatika lanean aipatu zuten zazpi Euskal Herrien ideia, liburua eskaini zutelarik «Zazpi Uskal-Herrietako Uskalduner» (zubereraz). Zazpi herriok izendatu zituen Axular handiak bere «Gero» sonatuaren sarreran, baina zenbakirik aipatu gabe. Iparraldean ere oihartzunik ukanen du Campion-

tiarren formulak: beren abestietan hartuko dute lore jokoetako bi txapel-dun ipartarrek, Piarres Ibarrart-ek eta Gratien Adema-Zaldubyk; eta 1892eko euskal jai handiak Donibane-Lohitzunen Abadiak bukaturen ditu bere deiadarrak: «Zazpiak-Bat!».

Sabinok ere «Euskeldun Batzokija»-ko araudietan izendaturen ditu zazpi Euskal Herriak, nahiz ez duen zenbakirik aipatuko. Beraz, tamalgarri zait noiztenka «Seirak-Bat» oihu zentzugabearen entzutea, gure aintzinekoek egina zapuztuz, besterik ezinez agian! Tamalgarri halaber Campionen abertzaletasun kulto eta zuhurra, benetan erdikoa gisa oroz, itzalean utzi baitzuen Sabinoren bazterreko nazionalismoak. Ez zuen oilar hoberenak hor kantatu, baina iragana ezin dezake aldatu Jaungoikoak ere. Gainera industria modernoa sortu eta garatzen hasi zen Bizkaian, ez ordea Nafarroan. Orainaz arta har dezagun beraz, baina deus ahantzi gabe: asko dugu ikasteko lore joko horietatik. 1879 ondoko garaiaz, ikus Beltzaren «El nacionalismo vasco, 1876-1936» liburua, Editorial Txertoa, Donostia, 1977 (bereziki 10 eta 12. atalak).

7-AZKEN URTEAK-AZKEN PREDIKUA

Azkenera urteko bi tokitan ospatuko dira d'Abbadieren jaiak:

1893: Azpeitian eta Uztaritzen

1894: Donibane-Lohitzunen eta Hazparnen

1895: Beran eta Ezpeletan

1896: Kanbon eta Maulen

1893an, Frantziako Iraultzak ezagutu zuen gailur odoltsuenaren mendeurrena da. Leon XIII Aita Sainduak Frantziako katolikoak deitzen ditu Errepublikaren onartzera. Horretarako Lavigerie kardinaliaz baliatzen da bitarteko bezala, eta honek deia zabaltzen du Aljeran, itsasarmadako gailidunen aurrean, haiekiko otordu handi baten karietara.

Zein izan zen d'Abbadieren erantzuna? Argitzeke dago. Baina Lavigerie baiones handia ezagutzen zuen duda gabe gure afrikar misiozaleak: adibidez 1888an Kanboko lore jokoetan zagon Lavigerie... Bestalde Antoine kaseta errepublikatiar bateko batzorde babeslean sartu zela dirudi. Gerorak agian erantzunen digu.

Baina alderantziz, Madalena Larralde-ren gaia behin baino gehiagotan inposatu zuten antolatzaileek azken lore jokoetan. Hori zen Sarako emakume bat, Espainiaren gudu denboran frantses armadak hil zuena muga ixilka pasa zuelako: heriotzaz ordaindu ohi zen horrelako egintza, salarien beldurrez. Emakume horretatik hamabost urteko neska bat egin zuen leiendak, Etxalarren edo Beran jaunartzen izan zela. Agian horretarako joana zen, baina bi armaden artean ibiltzeagatik zuten hil. Dena dela Madalena martiri eta mito bihurtu nahi izan zuten d'Abbadiek edo/eta haren adiskideek.

«Tamalgarria halaber Campionen abertzaletasun kulto eta zuhurra, benetan erdikoa gisa oroz, itzalean utzi baitzuen Sabinoren bazterreko nazionalismoak. Ez zuen oilar hoberenak hor kantatu, baina iragana ezin dezake aldatu Jaungoikoak ere. Orainaz harta har dezagun beraz, baina deus ahantzi gabe: asko dugu ikasteko lore joko horietatik. Beren garaiko ingurumenean ikusi behar dira jai horiek, orduko historiak, politikak, ekonomiak, gizarteak eta kulturak baldintzatu baitituzte»

Euskararen maila bederen goratu zuten, eta prosan ere onuragarri gertatu da hor landu den hizkuntza ederra. Uste dut zerbait zor diola olerkiari, lore jokoen bitartez, Louis-Lucien Bonaparte printzearen inguruko lanak ahanzi gabe, itzulpenak bereziki. Erantzunik hoberena da hegoaldeko udalak hasi direla lore jokoen, eta orokorki euskal jaien berpizten, haien mendeurrenak ospatuz: Elizondon (1979), Beran (1980), Markinan (1983), Durangon (1986), Gernikan (1988), Iurretan (1991), Eibarren eta Villaro-Areatzan (1997). Eta hor daude berriki Hendaian egin den Biltzar handiko mintzaldi ugari eta oparoak, Euskaltzaindiak eta Eusko Ikaskuntzak liburutan agertuko dituztenak, agian, agian laster.»

Bukatzeko, lore jokoen emaitzak aipaturen ditut labur-labur. Ez dira guties-tekoak, erlatibitatearen legerik ezagutzen ez duen progresismo absolutista baten izenean. Beren garaiko ingurumenean ikusi behar dira jai horiek, orduko historiak, politikak, ekonomiak, gizarteak eta kulturak baldintzatu baitituzte.

Lehendabizi, Kataluniako lore jokoen itzala omen dira: ez da egia. Carmelo Echegaray zenak bere garaian erakutsi zuen. Denbora zaharretakoak beren tokian utzirik, iragan mendekoak d'Abbadierenen ondotik hasi ziren Katalunian, 1859an hain zuzen. Gainera zabalagoak ziren Euskal Herrikoak: ez ziren soilik lore-joko, baserritar kultura guziaz besarkatzen zuten, kirola barne, pilota lehenik bistan dena, baina bestelako jokolaririk ere sartzen zen: segalari, aizkolari... Gainera Zuberoan «kabale primakak» deitzen ditugun ganadu lehiaketak, azienda eta abereen selekzioa bideratu dutenak. Bestalde nahi izan zuen mundializazioa, horren mehatxaturik ikusten zuen euskal baserritar mundua eta hori gisa guziez lagundu nahi zuen Antoine jakintsun eta euskaltzaleak. Abertzaletasunari ere bi-deak ideki zizkion, ikusi dugun bezala.

Olerkiaren maila ez zutela goratu lore jokoek... Baina humus bat prestatu zuten XX. mendeko lilientzat. Euskararen maila bederen goratu zuten, eta prosan ere onuragarri gertatu da hor landu den hizkuntza ederra. Iparraldean segurik, mundu bat badago XIX. mende horretako lehen partean erabili den prosa frantsestuen eta bigarreanean hazi den euskara bikainaren artean. Uste dut zerbait zor diola olerkiari, lore jokoen bitartez, Louis-Lucien Bonaparte printzearen inguruko lanak ahanzi gabe, itzulpenak bereziki.

Erantzunik hoberena da hegoaldeko udalak hasi direla lore jokoen, eta orokorki euskal jaien berpizten, haien mendeurrenak ospatuz: Elizondon (1979), Beran (1980), Markinan (1983), Durangon (1986), Gernikan (1988), Iurretan (1991), Eibarren eta Villaro-Areatzan (1997). Tartean sartu zaigu iparraldeko auzapez bat: Donibane-Lohitzunekoa 1992an, Euskal Herriko Kantu txapelketaren kariatara... Eta hor daude berriki Hendaian egin den Biltzar handiko mintzaldi ugari eta oparoak, Euskaltzaindiak eta Eusko Ikaskuntzak liburutan agertuko dituztenak, agian (utinam, iparraldeko zentzuan), agian laster.

BIBLIOGRAFIA

- XIX. mendeko historia: Frantziakoa, Espainiakoa, Euskal Herrikoa.
 HARITSCHELHAR Jean. *L'oeuvre poétique de Pierre Topet-Etchahoun*.
 LOPEZ ADAN Emilio. *El nacionalismo vasco, 1876-1936* (bi horien erreferentziak artikularen baitan daude).
 GOYHENETCHE Manex. 1979. *Pays Basque nord, un peuple colonisé*, Elkar.
 BILBAO Yon: *Gran Enciclopedia ilustrada del País Vasco*. Lit.1.